



Hezkuntza-komunitateko kide agurgarriok:

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztien eskola-jarduera presentziala aldi baterako eteteari buruz atzo helarazitako informazioaren osagarri gisa, honekin batera doakizue Hezkuntza sailburuordearen gaur egungo jarraibideak.

Gustatuko litzaidake azpimarratzea ikastetxe guztiek zabalik izan behar dituztela familiekin komunikatzeko ohiko bideak, eguneratutako informazio, argibide eta jarraibide pedagogiko guztiak helarazteko.

Gainera, gogorarazi nahiko nuke informazio eguneratua eta interes orokorreko jarraibide operatibo gehigarriak izateko, sailaren webgunearen barruan gun bat gaitu dela, eta, bertan, sailaren komunikazioak etengabe ari direla helarazten:

<https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>

Hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzunkidetasuna eskatzen dugu, salbuespenezko eta ezohiko aldi hau behar bezala kudeatzeko, aldi berean, lankidetzaren ere eskertzen dugularik, osasun-krisi honek irausten duen bitartean, gure ikasleen hezkuntzarako eskubide eraginkorra bermatzeko.

Adeitasunez, Vitoria-Gasteizen 2020ko martxoaren 13an.

Cristina Uriarte Toledo  
Consejera de Educación



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



## HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDEAK ESKOLA-JARDUERA PRESENTZIALA ALDI BATERAKO ETENDA DUTEN IKASTETXEENTZAT

Osasun Saitetik datozen aholkuen arabera, ikastetxeetako eskola-jarduera presentzialari eragiten dioten erabakiak hartzen ari gara.

Salbuespenezko erabakia da, gizarte osoaren inplikazioa eskatzen duen salbuespenezko egoera baten aurrean, koronabirusaren foku epidemiologikoaren transmisioa eta kutsatze-kopurua kontrolatzeko.

Testuinguru honetan, funtsezkoa da ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen koordinazioa eta lankidetzak, eta, horregatik, jarraibide hauek bidaltzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoen kudeaketaren gutxieneko erreferentzia komuna izan daitezen.

Langile guztien inplikazioa eskertuz, jakinarazten da jarraibide horiek alda daitezkeela, baldin eta Osasun Sailak, osasun-larrialdiko egoeraren bilakaeraren arabera, orain arte emandako jarraibideak aldatzen baditu.

### 1.- Zentroko langileen egoera:

Irakasleak eta irakasle ez diren langileak beren **ohiko ordutegian jardungo dute**. Horretarako arrazoiak bere ikasle taldeari lotuta jarraitzea da, **egunero dagokion ordutegian** harremana mantenduz. Horrela, ikasleek beren etxeetan ere beren ordutegia bete beharko dute, ikastetxera joango balira bezala.

Zentroan, oro har, **ahalik eta bilera gutxien egingo dira** Osasun Saila gomendatzen ari den banaketa ahalbidetzen ez duten guneeetan.

Beraz, komenigarria da lan bilerak **jende gutxirekin eta leku egokietan egitea (ondo aireztatuta)**.

### 2.- Ikasleentzako arreta:

Ikasleei arreta emateko, aldeztu aurretik informazioa eman behar zaie familiei edo legezko tutoreei, beren seme-alabak ohartarazi dezaten **ikasteko ordutegia eta irakasleekiko harremana mantentzeko beharraz**.

Helburua da aurrez aurreko eskolak etetearen ondorioak minimizatzea, ikasleekin lan-eritmoari eustea eta, ahal den neurrian, maila bakoitzeko hezkuntza-dukietan aurrera egitea.

Hasiera batean, etxean euskarri digitala duten **ikasleek beren asteko ordutegiaren arabera** egokituko litzaziekeen irakasleekin konektatuta egon beharko dute.



Zentro bakoitzak komunikazio hori zer bitartekoren bidez egiten den jakinaraziko du (telefono-deiak edo bestelakoak, posta elektronikoa, ikastetxearen webgunea, bloga, classroom, Moodle, Hangouts, etab.).

**Euskarri digitalik ez duten ikasleentzat**, ikastetxeak neurriak hartuko ditu lanaren edukia eta hura egiteko, zuzentzeko eta entregatzeko jarraibideak inprimatuta jasotzeko.

### 3.- Hezkuntza-jardueraren antolaketa:

**Haur-hezkuntzako 2-3-4 urteko** irakasleek ikasgelak egokitzeko, materialak egiteko eta abarrerako jarduerak egingo dituzte, eta ikastetxeko zuzendaritzak agintzen dizkion zereginetan lagunduko dute. **5 urteko mailaren kasuan**, ikasleentzat aurre-irakurketarekin, aurre-idazketarekin eta matematikarako gaitasunarekin lotutako materiala prestatuko da, bai eta ikasleen jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako beste material batzuk ere.

**Lehen hezkuntzan**, gainera, tutore bakoitzaren arduraz izango da ikasleei lanerako proposamen zehatzak helaraztea, zereginak, materialak eta egiteko epeak adierazita. Era berean, egindako lana jasotzeko, zuzentzeko eta ikasle bakoitzari itzultzeko kanal egokiak antolatu beharko ditu. **Material hori arlo instrumentalagoei, batez ere, lotuta egongo da (irakurketa eta idazketa eta matematika)**

**DBHn eta Batxilergoan**, irakasleak Departamento didaktiko eta tutorearekin koordinatuko dira lehen aipatutako zereginetan. Gogoan izan **Batxilergoko 2. urtekoentzat, orientazio berari jarraituz, derrigorrezko hezkuntzaren osteko etapa honi eta, zehazki, unibertsitatera sartzeko proben ereduari gehien lotutako edukiak eta jarduerak azpimarratuko dira. EBAU dela eta aztertzen ari dira horri buruzko neurriak, eta bere garaian jakinaraziko dira.**

**Gainerako irakasleek** zuzendaritzak egokitzen dituen zereginetan lagunduko dute. **Aholkularien edo orientatzaileen eta PTen kasuan**, artatzen dituzten ikasleentzako lan-proposamen zehatzak koordinatuko dituzte taldeko tutorearekin batera.

**Hezkuntza-laguntzako espezialisten kasuan**, ikasleen autonomia garatzeko indarrean dauden programak berrikustea gomendatzen da, esku hartzen duten eremu eta denbora guztietan (gela, jangela, jolastokia ...), eta programa horiek eta dagokien materiala eguneratzea edo egokitzea.

**EHI eta fisioterapeuta** ibiltariek atxikitako zentroan egingo dute lana. Ikasleen esku-hartze programak ere berrikusi eta eguneratu beharko dituzte, eta, hala badagokio, familiei jarraibideak eman.

Ikasteko ingurune birtualik ez duten ikastetxeetan (Google edo Microsoft), ikastetxeko zuzendaritzak ingurune horiek ezartzeko eskatu ahal izango dio Hezkuntza Sailari. Horretarako, helbide elektronikoa honetara bidali beharko duzu eskabidea:

[X.mujika@berritzegunenagusia.eus](mailto:X.mujika@berritzegunenagusia.eus)



Gogorarazten da Berritzeguneetako aholkularitzen esanetara daudela, arlo horretan laguntzeko.

**Araudi Bereziko Irakaskuntza-zentroek** DBHko eta Batxilergoko ikastetxeekin parekatuko dute beren egoera. Jarraibide hauetan aurreikusigabeko edozien egoera, bereziki goi-mailako irakaskuntzen kasuan, ikuskaritzarekin kontsultatu beharko da, eta, azken batean, Hezkuntza Sailburuordeak baimendu beharko du.

#### **4.- Familiekiko harremana**

Familiekiko harremanean helburu nagusia bikoitza da. Alde batetik, informazioa eta komunikazioa etengabe mantentzea, Osasun Sailak argitaratzen dituen gomendioak zabaltzen eta haien jarraipena egiten jarraitzeko.

Bestetik, familia guztiek ikastetxeekin harremana izan ahal izatea ziurtatzea, agindutako eskola-lanen jarraipena bermatzeko. Alde horretatik, haien inplikazioa beharrezkoa da seme-alabak opor garaian ez daudela kontzientziatzeko.

Banakako tutoretzak mantendu ahal izango dira bitarteko telefoniko edo digitalen bidez, ahal dela.

Etxean bitarteko digitalik ez badute, ikastetxean bertan jaso beharko dute dagokien zeregina, ikastetxeak ezarritako jarraibideei jarraituz.

#### **5.- Irakasleen irteerak (Erasmus eta beste batzuk)**

**Ikasleekin edo irakasleekin egiten diren mota guztietako irteerei dagokienez, Osasun Sailaren jarraibideak bete behar dira, une honetan horiek saihestea gomendatzen baitu.**

#### **6.- Berritzeguneen eta Ikuskaritza eta beste hezkuntza-zerbitzuen jarduera espezifikoak.**

Zerbitzu hauek jarraibide espezifikoak dituzte ikastetxeei arreta emateko.

Jarraibide horiek jarduerak areagotzearekin lotuta daude, ikastetxeei dokumentu honetan edo salbuespenezko egoera honetan sor daitezkeen jarraibideetan jasotako jarraibideak garatzen laguntzeko.

**Nolanahi ere, bertan behera geratzen dira ikastetxetik kanpoko prestakuntza-jarduera presentzialak.**

Adeitasunez

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martoxaren 13a

Maite Alonso Arana  
Hezkuntza Sailburuordetza